GABONETAKO TAILERRAK

2026–2027 IKASTURTEA

2021 eta 2026 urteen artean jaiotako haurrentzat

Galtzattipi Haur Eskolan Gabonetako Tailerrak eskaintzen ditugu, eskola-oporretan familia- eta lan-bizitza uztartzea errazteko asmoz. Beren adinera egokitutako jolas, eskulan eta dinamiken bidez, ingurune seguru, hurbil eta dibertigarri batez gozatuko dute.

Datak eta ordutegiak

- **Aldia:** 2026ko abenduaren 21etik 2027ko urtarrilaren 5era (astelehenetik ostiralera, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean izan ezik; jaiegun horietan zentroa itxita egongo da).
- **Irekiera-ordutegia:** 07:30etik 15:30era. (abenduaren 24 eta 31ean eta urtarrilaren 5ean izan ezik, 15:00etan itxiko dugu eta)
- **Ordutegi-malgutasuna:** Familiek beren beharretara hobekien egokitzen den ordutegia aukeratu ahal izango dute eskuragarri dauden modalitateen barruan. Taldeak eta txandak behar bezala antolatzeko, ezinbestekoa izango da izena emateko unean sarrera- eta irteera-ordu zehatzak adieraztea.

Tarifak

Aldia	Eskola-egunak	3 ordu arte/egun	6 ordu arte/egun	8 ordu arte/egun
Abenduaren 21etik 24ra	4 egun (25a jaieguna)	**45 €**	**60 €**	**75 €**
Abenduaren 28tik 31ra	4 egun (urt. 1a jaieguna)	**45 €**	**60 €**	**75 €**
Urtarrilaren 4tik 5era	2 egun	**25 €**	**35 €**	**40 €**
Egun soltea (aukerakoa)	1 egun	**15 €**	**20 €**	**30 €**

• **Jantoki-zerbitzua: 7 €/egun** (aukerakoa, hautatutako egunekin batera kontratatu beharrekoa).

Izen-ematea eta plaza-erreserba

Plazak mugatuak dira eta izen-ematearen hurrenkera zorrotzaren arabera esleituko dira.

1. Eskaera: Jarri harremanetan zentroarekin lekua dagoen egiaztatzeko eta datak, aukeratutako ordutegia eta jantoki-zerbitzua behar den zehazteko.

2. Ordainketa: Lekua baieztatu ondoren, 2 eguneko epea izango duzu kontratatutako zerbitzuen zenbateko osoa ordaintzeko, Banco Sabadell-eko kontu-zenbaki honetara transferentzia eginez: **ES82 0081 4254 4000 0114 1519** (kontzeptuan haurraren izen-abizenak adieraziz). Ordainketa gauzatu arte, plaza ez da erreserbatuta geratuko.

Aldaketa- eta baliogabetze-politika

- **Bajak:** 2026ko abenduaren 4ra arte onartuko dira baliogabetzeak; kasu horretan, ordaindutako zenbatekoa itzuliko da, kudeaketa-gastuengatik % 12 kenduta. Data horretatik aurrera ez da dirurik itzuliko.
- **Data-aldaketak:** Kontratatutako datak aldatu ahal izango dira, eskatutako egun berrietan plaza libreak dauden neurrian.

Ezagutu nahi gaituzu?

Galtzattipi Haur Eskolatik pasatzera gonbidatzen zaituztegu, gure instalazioak ezagutzeko eta edozein zalantza argitzeko.